

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN IV. GIDA PLANA

LUZAPENA (2022-2024)

2022ko apirila



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

AURKIBIDEA

1. Sarrera	2
2. Lankidetzaren politikaren helburuak	5
3. Ikuspegiak	5
4. Zeharkako lehentasunak, sektorialak, geografikoak eta testuinguruaren arabekoak	5
5. Jardun estrategikoaren ardatzak	5
6. Komunikazioa	15
7. Jarraipena eta ebaluazioa	16
8. Baliabideak	16
9. AUZO(LAN)KIDEAK: ekimen enblematikoak	19
10. Azken gogoetak	19

1. SARRERA

2018ko uztailaren 24an, Gobernu Kontseiluak 2018-2021 aldirako Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Plana onartu zuen. Plan horrek gure logikak eta egiteko moduak egungo erronka globaletara eta tokikoetara egokitzeko beharra ezartzen zuen. Hala, zenbait ikuspegi, jarduera-ardatz estrategiko eta ekimen enblematiko lehenetsi ziren, lan egiteko modu berriak bultzatzeko, gure ingurunearen gaitasunak hobeto aprobetxatzen laguntzeko eta ikaskuntzak sortzeko, hori guztia Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren ahalmen eraldatzailea hedatzeko asmoz. Aldaketa sakonen testuinguru global honetan, egokitzen jotzen dugu Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legea berrikusteko prozesu bat hastea, eta haren potentzialtasunen eta mugen azterketa bat egitea planifikatzen dugu. [Garapenerako Lankidetzaren Euskal Legeari buruzko txostena](#) argitaratzeak eta eztabaidatzeak azkartu egin zuen lege hori berritzeko beharra eta aukera. Hala, 2021ean, lankidetzari eta elkartasunari buruzko euskal lege berri bat egiteko prozesuari ekin genion, euskal lankidetzaren ahalmen eraldatzailea indartzeko esparrua eskaini nahi duena, eta baita egungo erronkei erantzuteko bide berriak aztertu ere. Lege-aurreproiektuaren zirriborroak agindu zehatzak ezartzen ditu plangintzen prozesuari eta edukiari buruz, baita euskal lankidetzaren antolaketari eta kudeaketari buruz ere, eta horiek ere eragina izango dute plangintzan.

Horregatik, Kontseilu Errektoreak, 2021eko azaroaren 16ko ohiko bilkuran, ontzat jo zuen 2018-2021 aldirako IV. Gida Plana lege berria onartu eta sei hilabetera luzatzea.

Aurreikusita zegoen bezala, eta luzapen-proposamena egiteko oinarri gisa, 2021eko azken hiruhilekoan 2018-2021 aldirako IV. Gida Plana ebaluatze prozesua hasi genuen. Luzapen hau amaitzean, aldi osorako ebaluazioa egingo da.

Ebaluazio-prozesua barnekoa izan da, eta hainbat eragileren¹ ekarpenak eta kontrasteak izan ditugu, galdetegien eta lan-tailerren² bidez. Jarraian, modu sintetikoan aurkezten dira ebaluazio-prozesuaren ondoriozko ideia nagusiak.

¹ GGKEak eta beste gizarte-eragile batzuk, Eusko Jaurlaritzako sailak, erakunde autonomoak eta erakundeak, foru-aldundiak, udalak eta Euskal Fundoa, beste autonomi-erkidego batzuetako lankidetz-agentziak eta eLankidetzako lantaldea.

² Sei galdetegi (ezagutzari eta hartzaileen Gida Planarekiko harreman-mailari egokituak) eta bi tailer (saio bat eLankidetzako lantaldearekin eta bestea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluarekin) egin ziren.

Honako hauek izan dira 2018-2021 epealdirako lorpen nagusiak:

- Lankidetzeta-aurrekontuen egonkortasuna, krisi ekonomikoa gorabehera
- Lankidetzeta-sektorean eragile berriak sartzea
- Eragileen arteko artikulazio estrategikoa sustatzea
- Lankidetzeta deszentralizatuari balioa ematea
- Ekintza berritzaileak eta estrategikoak bultzatzea
- Lankidetzeta ardatz estrategiko gisa Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuen plangintzetan txertatzeko aurrerapausoak
- Garapenerako politiken koherentziaren arloko lana bultzatzea, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin artikulatuta
- Gizarte-eraldaketarako eta ekintza humanitariorako hezkuntza-estrategiak bultzatzea
- Lehenetasun sektoriala: emakumeen ahalduntzea eta giza eskubideen defendatzaileen babesa
- Lehenetasun geografikoa: Afrika eta gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk
- Zeharkako lehenetasunak: giza eskubideak eta generoa
- Prozedurak digitalizatzea
- eLankidetzari atxikitako langileak gehitzea
- eLankidetzari atxikitako langileen konpromisoa eta kualifikazioa
- Komunikazio-estrategia bultzatzea
- Prestakuntza-guneak bultzatzea

Honako elementu bideratzaile eta oztopatzaile hauek identifikatu ziren IV. Gida Planean ezarritako helburuak lortzeko:

PALANKAK	OZTOPOAK
<ol style="list-style-type: none"> 1. Apustu politiko eta ekonomiko egonkorra 2. Lidergoak, erantzukizunak eta helburu argiak 3. IV. Gida Planaren barne-jabetzea 4. Talde motibatua eta esperientziaduna 5. Helburu jakin bati baliabideak berariaz esleitzea 6. Kudeaketan eta lehenespenean ikastea 7. eLankidetzeta erreferentziako eragile gisa aitortzea 8. Kanpoko beste eragile batzuekiko harremana eta artikulazioa 9. Lankidetzeta-sektorea finkatua 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ahulezia bultzada politikoan eta lidergoan 2. Asmo handiegiko plangintza 3. Argitasunik eza erantzukizun, funtzio eta zereginetan 4. Ahultasuna barne-artikulazioan 5. Langile eta denbora urritasuna 6. Prestakuntza, ezagutza eta baterako hausnarketa eza 7. Ziurgabetasuna kudeatzeko zailtasuna 8. Apustu estrategikoak sustatzeko tresnen murriztasuna 9. Barne- eta kudeaketa-prozedura hobegarriak

Luzapen-proposamenaren diseinu eta ebaluazio prozesuak paraleloak izan dira. Horrela, galdesortetan eta egindako tailerretan bildutako informazioaren bidez, hurrengo urteetarako erronka hauek identifikatu ditugu:

ERRONKAK

- % 0,7
- erantzunkidetasuna
- garapenerako politiken koherentzia
- erakundeen arteko koordinazioa hobea
- aliantza hobeak
- gaitasunak trukitzea
- parte hartzeko eta eraikuntza kolektiborako espazioak
- malgutasuna eta berrikuntza
- ikaskuntza gehiago
- arintasun gehiago kudeaketa-prozeduretan
- sakontasun gehiago lehenetsitako ardatzetan: giza eskubideak, generoa, Afrika, gatazkak, gizarte-eraldaketarako hezkuntza, ezagutza, AUZO (LAN) KIDEAK
- ingurumena/klima
- ikuspegi lokal-globalaren zehaztapena
- euskal lankidetzaren ikusgarritasuna
- euskal herritarren mobilizazioa

Ebaluazioaren ondorio nagusiak eta etorkizunerako identifikatutako erronkak aztertu ondoren, berretsi egiten dugu IV. Gida Planaren ikuspegiak eta lehentasunek gaur egungo erronkei erantzuteko balio dutela. Era berean, egiaztatu ahal izan dugu 2018-2021 aldirako ezarritako helburuak ez direla sakontasun osoz garatu, hainbat arrazoiengatik (pandemiaren ondorioz jarduera moteldu egin delako, ekimen berritzaileak abian jartzeko eta sendotzeko denbora gehiago beharrezkoa delako, edo eLankidetzako lantaldea plana gauzatu den azken urtean handitu delako). Horregatik, IV. Gida Planaren egiturari jarraituz, 2022-2024 aldirako luzapenak planteatzen dituen jarduera-ildo nagusiak jasotzen ditugu jarraian.

2. LANKIDETZA-POLITIKAREN HELBURUAK

IV. Gida Planaren epe luzatua, ezarritako lankidetzaren politikaren helburuei eutsiko zaie. Hau da:

1. Pertsonak eta kolektiboak, batez ere sistematikoki baztertuak izaten direnak, giza garapen iraunkorrerantz eta giza eskubideen egikaritzea osorantz aurrera egiteko sustatzen dituzten gaitasunak indartzea eta estrategiak laguntzea;
2. Lankidetzaren politikaren oinarri soziala zabaltzea eta Euskadiko pertsona, entitate eta erakundearen elkartasuna eta inplikazioa bultzatzea; eta
3. Berrikuntzatik eta ikaskuntzatik abiatuta, gure praktikak eta ikuspegiak eraldatzea, garapen-arazoei erantzuna emateko modu egokituago, integrago, estrategikoago eta koordinatuago batean.

3. IKUSPEGIAK

Luzapenean, IV. Gida Planaren lehenetsitako ikuspegiei eutsi zaie: lotura lokal-globala, elkarrizketa estrategikoa, erantzukidetasuna, norberaren ekimena, koherentzia eta koordinazioa, herritar kritikoak, ikaskuntza, berrikuntza, eta lankidetzaren deszentralizatuari balioa ematea.

4. ZEHARKAKO LEHENTASUNAK, SEKTORIALAK, GEOGRAFIKOAK ETA TESTUINGURUAREN ARABERAKOAK

Luzapen-aldian, IV. Gida Planaren adierazitako zeharkako, sektoreko, geografiko eta testuinguruko lehentasunei eutsiko zaie.

5. JARDUN ESTRATEGIKOAREN ARDATZAK

Luzatutako aldian, IV. Gida Planaren lehenetsitako ardatzei eutsiko zaie, eta horrek aukera emango digu planak ezartzen dituen ikuspegi eta lehentasun estrategikoetan sakontzen jarraitzeko.

Ebaluazioaren ondorioetan eta identifikatutako erronketan oinarrituta, jarraian, luzatutako aldian ardatz bakoitzean gauzatu beharreko jardueren ildo eta ekintza nagusiak zehazten dira.

5.1. GARAPENERAKO POLITIKEN KOHERENTZIA

Arkitekturaren garapena

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren barruan eratu den Garapen iraunkorrerako politiken koherentziari buruzko lantaldea dinamizatzen jarraituko dugu. Lantaldea gaia bultzatzeko, aztertzeko eta eztabaidatzeko gune gisa, eta erakundeetako eta gizarteko eragileen parte-hartzea izaten jarraituko du. Taldearen urteko plangintzetan jasotzen diren ekintzez gain, honako jarduera hauek egingo dira:

Jarduteko ildoak	Emaitza	Aurreikusitako egutegia
<ul style="list-style-type: none"> Garapenerako politiken koherentziaren betetze-mailari buruzko txostenak egitea 	✓ Txosten bat gutxienez	2023
	✓ Goi mailako kargudunekin saioa bat	2022
<ul style="list-style-type: none"> Gaiari buruzko prestakuntza-eskaintza 	✓ IVAPek eskainitako ikastaro bat	2023
	✓ Lantaldearen urteko saio bat, gutxienez.	2022-2024

Eusko Jaurlaritzako sailak beren jarduera-eremuekin lotutako lankidetzakiminetan sartzea

eLankidetzaren eta Eusko Jaurlaritzako beste sail, ente eta erakunde batzuen arteko ekimen bateratuak bultzatzen jarraituko dugu, eta, bereziki, aldi honetan honako hauek abiaraziko ditugu:

Jarduteko ildoak	Emaitza	Aurreikusitako egutegia
<ul style="list-style-type: none"> 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren kanpo-dimentsioari ekarpena 	✓ Osasun Globala Ginea Bissaun	2022
	✓ Hezkuntzaren Auzolana Malawi	2022
<ul style="list-style-type: none"> Eusko Jaurlaritzako beste sail, ente edo erakunde batzuekin lan-ildo berriak bultzatzea, lankidetzakiminetaren eta beste politika batzuen arteko koherentzia hobetzeko. 	✓ Gutxienez beste ekimen berri bat abian	2023
	✓ Gutxienez beste akordio bat sinatu da	2023

2018-2021 aldiko ebaluazioan egindako azterketatik abiatuta, ez da onartu IV. Gida Planean garapen jasangarrirako politiken koherentziari lotuta aurreikusitako hiru ekimen pilotuekin jarraitzea: AUZO (LAN) KIDEAK GIZA ESKUBIDEEN ALDE, EROSTERAKOAN eta MUNDUAN. Hala eta guztiz ere, eLankidetzak laguntzen jarraituko du arlo horietan sail, ente edo erakunde arduradunek bultzatzen dituzten prozesuetan.

Erakundeen arteko artikulazio eta koordinazio handiagoa

Epe honetan, erakundeen arteko koordinazioaren eta lankidetzaren aldeko apustua egiten jarraituko dugu, hiru mailatan:

- (i) Euskadin, administrazioaren hiru mailen artean;
- (ii) beste autonomia-erkidego batzuetako erakunde pareekin; eta
- (iii) Europa mailan.

Bultzatzen ari garen ekimenez gain (euskal lankidetzaren publikoaren ataria, AUZO(LAN)KIDEAK ELKARREKIN eta AUZO(LAN)KIDEAK KOMUNIKAZIOAN, besteak beste), honako hauek nabarmendu behar dira aldi honetarako:

Jarduteko ildoak	Emaitza	Aurreikusitako egutegia
<ul style="list-style-type: none"> • Erakundeen arteko ekimen berria Euskadiko administrazioekin 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ekimena abian da ✓ Komunikazio produktu bat 	<ul style="list-style-type: none"> 2023 2022
<ul style="list-style-type: none"> • Beste autonomia-erkidego batzuekin ekimen bateratuak 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Lau politika-dokumentu eta osasun globalari buruzko foro bat ✓ Baterako komunikazioak ✓ Hiru elkartruke jardunaldi 	<ul style="list-style-type: none"> 2022 2022-2024 2022-2023
<ul style="list-style-type: none"> • Europako lankidetzaren deszentralizatuko eragileekin egindako ekimenak, PLATFORMAREN esparruan 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Bi sentsibilizazio ekintza ✓ Hiru elkarrizketa saio Europar Batasunarekin 	<ul style="list-style-type: none"> 2022-2023 2022

5.2. EREMU ESTRATEGIKOAK

Eremu estrategikoen funtzionamendu, kudeaketa, jarraipen eta ebaluazio ereduaren garatzea

Ez dago ekintzarik aurreikusita aldi honetarako.

Bi eremu estrategiko abian jartzea

Luzapen-aldian, IV. Gida Planean eremu estrategikoei buruz egindako proposamena aztertzen jarraituko dugu. AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN elkartearen kasuan, informazioa trukatzeko aldizkako dinamikari eustez gain,

baterako posizionamenduak egiteaz gain eta Cauca Iparraldeko ekimen bateratuari bigarren fasearekin jarraitzeaz gain, Euskadi, Kolonbia eta Afrikako herrialde batzuetako esperientzien (definitzeke daudenak) arteko elkartruke eta elkarriketa dimentsioa garatzen saiatuko gara. AUZO(LAN)KIDEAK EKONOMIAN ekimenaren kasuan, esperientzia zehatzetarako laguntza oinarri hartuta, topaketa- eta elkarriketa-guneak sortzen saiatuko gara.

Jarduteko ildoak	Emaitzak	Aurreikusitako egutegia
<ul style="list-style-type: none"> AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN: gatazken eraldaketa eta bakearen eraikuntza 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Egiaren batzordearen txostenari laguntzeko ekintzak ✓ Hausnarketarako eta elkartrukeko bi gune 	<p>2022</p> <p>2022-2024</p>
<ul style="list-style-type: none"> AUZO(LAN)KIDEAK EKONOMIAN: eredu ekonomiko solidarioa 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Jardunaldi bat 	<p>2024</p>

Esperientzia sozializatzea eta balioestea

Ez dira ildo horretako ekintzak planifikatzen. Sortzen diren aukeretan oinarrituta egingo dira.

Eremu estrategikoen esperientziaren ebaluazioa

Jarduteko ildoak	Emaitza	Aurreikusitako egutegia
<ul style="list-style-type: none"> Eremu estrategikoei buruzko hausnarketa, V. Gida Planari begira 	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ondorioak eta gomendioak 	<p>2023-2024</p>

5.3. LOKAL-GLOBALA

Ikuspegi lokal-globalean sakontzea

2018-2021 aldian pixka bat aurreratu da ikuspegi hori zehazten eta txertatzen. Ebaluazioan, apustu berrietan aurrera egiteko lagungarri den elementuetako bat plangintza espezifikoa izatea dela identifikatzen da. Horregatik,aldi honetarako, eremu horretarako ibilbide-orri espezifiko bat egitea planteatu dugu.

Jarduteko ildoak	Emaitza	Aurreikusitako egutegia
✓ Ikuspegi lokal-globalean sakontzeko ibilbide-orria zehaztea	✓ Ikuspegiari buruzko barne-hausnarketa	2022-2023
	✓ Ibilbide-orria	2023
✓ Programen tresna berria	✓ Deialdia	2023

Sareak eta aliantzak bultzatzea

Egiten den ibilbide-orriaren arabera.

Gaitasunak indartzea

Egiten den ibilbide-orriaren arabera.

5.4. GIZA ESKUBIDEAK

Giza eskubideen ikuspegi sakontzea

IV. Gida Planaren ebaluazioaren ondorioetako bat gida plana bera asmo handiegiko dokumentua dela izan da. Horregatik, luzapenerako, ahaleginak emaitza batzuetan jarriko ditugu eta ordea beste emaitza batzuk baztertzea erabaki dugu. Horrela, giza eskubideen ardatzean, ardatz sektorialari lehenetsua ematea erabaki dugu eta aldiz, zeharkako ikuspegi sakontzea baztertzea erabaki dugu.

Babesa helburu duten ekimenak lehenetsia

Emandako funtsen % 4a erreserbatzen jarraitzeaz gain, aldi honetan jardueraren eremua Afrikako kontinentera zabaltzea nahi dugu³.

Jarduteko ildoak	Emaitzak	Aurreikusitako egutegia
✓ Babes-lerroa zabaltzea Afrikan	✓ Babesari eta Afrikari buruzko jardunaldi bat	2023
	✓ Lagundutako ekimen bat gutxienez	2022

Babesaren arloko koordinazio- eta ikaskuntza-guneak

Aldi honetan, irmo bultzatu nahi dugu ezagutza eta ikaskuntza sortzeko ardatza.

³ 2018-2021 aldian, babeserako funtsen % 6a baino ez da bideratu kontinente afrikarrera (34 ekimenetatik 2).

2018-2021 aldian, babeserako funtsen % 6 baino ez da bideratu kontinente afrikarrera (34 ekimenetatik 2).

Jarduteko ildoak	Emaitzak	Aurreikusitako egutegia
✓ Babesteko ikaskuntza-ildoaren garapena	✓ Jardunbide egokien bi analisi ⁴	2022-2024
	✓ Bi elkartruke-gune	2023-2024

Babesteko eLankidetzaren zeregina indartzea

Luzapen-aldian, Babeserako Ibilbide Orria (2020-2023) ezartzen jarraituko dugu, bereziki ezagutza eta ikaskuntza sortzen, eta eremu horretarako plangintza espezifiko berri bat egitearen egokitasuna baloratuko dugu.

Jarduteko ildoak	Emaitzak	Aurreikusitako egutegia
✓ Giza eskubideen defendatzaileak babesteko Euskal Programa	✓ Hobekuntzen analisia	2022
	✓ Hiru edizio	2022-2023
✓ Babes eta eragin politikorako komunikazioa	✓ Komunikazio protokoloa	2022

5.5. GENEROA

Emakumeak ahalduntzeko zeharkako ikuspegiaren eta ikuspegi sektorialaren ezagutzan eta aplikazioan sakontzea

Aurreko ardatzean aipatutako ildo berean, ezagutza eta ikaskuntzak sortzearen esparruan, sektore-ardatza garatzearen aldeko apustua egiten dugu, eta, oraingoz, zeharkako ikuspegiaren sakontzea baztertzen dugu. Hala ere, genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuetako ikaskuntzen sistematizazioan aurrera egingo da, genero-zeharkakotasuna bultzatzeko funtsezko elementu gisa.

Jarduteko ildoak	Emaitzak	Aurreikusitako egutegia
✓ Emakumeen ahalduntzeari buruzko ikaskuntza-ildoaren garapena	✓ Jardunbide egokien bi analisi ⁵	2022-2024
	✓ Bi elkartruke-gune	2023-2024

⁴ Kasu-azterketen, ebaluazioen, analisisien edo ezagutza eta ikaskuntza sortzeko beste tresna batzuen bidez.

⁵ Kasu-azterketen, ebaluazioen, analisisien edo ezagutza eta ikaskuntza sortzeko beste tresna batzuen bidez.

✓ Genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuen barne-sistematizazioa	✓ Ikaskuntzen laburpen-dokumentua	2023
--	-----------------------------------	------

Emakumeak ahalduntzeko ekimenak lehenestea eta erakunde feministak babestea

Epe honetan, emakumeak ahalduntzea helburu nagusi duten ekimenetarako emandako funtsen % 20a gordeko da, eta % 10a Hegoaldeko erakunde feministetarako.

Sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia txertatzea

Lan-ildo horretan sakontzen jarraitu nahi dugu, aurreko aldiaren bultzatutako prestakuntzatik eta partekatutako esperientzietatik abiatuta.

Jarduteko ildoak	Emaitzak	Aurreikusitako egutegia
✓ Sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia txertatzeari buruzko barne-gogoeta	✓ Posizionamendu dokumentua	2022
✓ Esperientzia pilotuak garatzea	✓ Gutxienez bi	2022-2024

eLankidetzako zeharkakotasun-estrategia indartzea

Epe honetan, eLankidetzaren Genero Berdintasunaren aldeko Antolaketa-aldaketako I. Plana (2021-2024) ezartzen jarraituko dugu. Aurreikusitako ekintzen artean, honako hauek nabarmentzen dira bereziki:

Jarduteko ildoak	Emaitzak	Aurreikusitako egutegia
✓ Sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko protokolo bat garatzea	✓ Protokoloa abian egotea	2022

5.6. AFRIKA

Afrikaren lehentasun geografikoa

2021ean, Afrikako ekimenetarako erreserbatutako funtsen % 25era iritsi ginen. Luzapen-aldian neurri positiboak ezartzen jarraituko dugu dirulaguntza-tresna guztietan, ehuneko-helburua betetzen jarraitzeko.

Afrikan zentratutako eta afrikako eragileekin egindako ekimenak sustatzea

Ikuspegi lokal-globalerako aurreikusten den bezala, beharrezkotzat jotzen dugu plangintza espezifiko bat egitea Afrikako lanaren bultzada irmoa bermatzeko.

Jarduteko ildoak	Emaitzak	Aurreikusitako egutegia
✓ Afrikan lana sustatzeko ibilbide-orria garatzea	✓ Ibilbide-orria	2022

Eragileak indartzeko topaketa- eta ikaskuntza-guneak sortzea

Ibilbide-orriak ezartzen duenaren zain, orain arte egin den bezala, Afrikako tokiko eragileak eta Afrikan lan egiten duten euskal eragileak indartzen jarraituko dugu. Era berean, migratzaile afrikarren erakundeen eta euskal erakunde sozialen arteko topaketak bultzatzen saiatuko gara.

Jarduteko ildoak	Emaitzak	Aurreikusitako egutegia
✓ Gaitasunak indartzea	✓ Prestakuntzak gutxienez hiru herrialdetan	2022-2024
✓ Migratzaile afrikarren elkarrekin hurbilketa, topaketa eta ekimenen garapena	✓ Prestakuntza bat euskal erakundeentzat	2023-2024
	✓ Gutxienez bi sentsibilizazio-produktu urtean	2022-2024
	✓ Afrikako migratzaileen elkarten gaitasunak indartzea	2022-2023

eLankidetzaren zeregina indartzea

Garatuko dugun ibilbide-orriak ezartzen dituen erronkez gain, eLankidetzatik honako ekintza hauek bultzatzea aurreikusi dugu:

Jarduteko ildoak	Emaitzak	Aurreikusitako egutegia
✓ Ekimen propioak garatzea Ginea Bissaun eta Senegalen	✓ Abian daude bi ekimen	2022-2024
✓ Auzo (LAN) KIDEAK BAKEAN, HEZKUNTZAN, TEKNOLOGIAN eta INGURUMENEAN taldeen dimentsio afrikarrean sakontzea	✓ Emakumeei, bakeari eta segurtasunari buruzko elkarrizketarako gune bat.	2022-2024

✓ Euskal Herriko eta Afrikako eragileen arteko bi elkartruke.	2022-2024
✓ Bi prestakuntza- eskaintza hainbat hezkuntza- mailatarako.	2023-2024

5.7. GATAZKAK ETA BESTE INDARKERIA-EGOERA BATZUK

Gatazketan eta beste indarkeria-egoera batzuetan oinarritutako ekimenei lehentasuna ematea

Luzapenean, emandako funtsen % 9a gatazketan eta bestelako indarkeria-egoeretan oinarritutako ekimenetarako gordetzen jarraituko dugu.

Erakunde humanitarioak indartzea

Prestakuntza- eta ikaskuntza-espazioak eskaintzen jarraituko dugu, baita euskal eta tokiko erakundeak indartzeko tresnak ere.

Jarduteko ildoak	Emaitzak	Aurreikusitako egutegia
✓ Prestakuntza eta esperientziak trukatzeko guneak	✓ Bi gune gutxienez	2022-2023
✓ Ikaskuntza lagundutako praktiketarik abiatuta	✓ Ikaskuntzen aplikazioaren balorazioa	2023
	✓ Bi ebaluazio edo azterlan	2022-2023

Kontuak ematea eta sentsibilizazioa

2020an xede-biztanleriari kontuak emateko eta haien parte hartzea sakontzeko prozesu bat hasi genuen eta jarraipena emango diogu. Era berean, testigantzak biltzen, sentsibilizatzen eta Euskadin eragiten eta kontuak ematen jarraituko dugu.

Jarduteko ildoak	Emaitzak	Aurreikusitako egutegia
✓ Kontuak ematea xede-biztanleriari	✓ Tresnaren aplikazioaren jarraipena	2022-2023

✓ Sentsibilizazioa eta kontu-ematea Euskadin	✓ Komunikazio-produktu bat	2023
	✓ Hitzaldi bat	2022

eLankidetzaren zeregina indartzea eta beste eragile batzuekin koordinatzea

Sistema humanitarioa indartzen lagundu nahi dugu, estatuz azpiko gobernu baten esperientzietatik eta gaitasunetatik abiatuta.

Jarduteko ildoak	Emaitzak	Aurreikusitako egutegia
✓ Ikaskuntzen sozializazioa	✓ Hiru jardunaldietan parte hartzea	2022-2024
✓ Osakidetzako langileek START programan parte hartzea sustatzea.	✓ Artikulu bat ✓ Bi deialdi gutxienez	2022-2024

5.8. EZAGUTZA ETA IKASKUNTZA SORTZEA

Ezagutza kudeatzeko estrategia bat diseinatzea

Lagundutako esperientzietatik ikasi nahi dugu, eta horretarako, daukagun ezagutza kudeatzeko strategiaren garapenean aurrera egin behar dugu.

Jarduteko ildoak	Emaitzak	Aurreikusitako egutegia
✓ Datuen ustiapena	✓ Sistema finkatuta egotea	2022
✓ Ikaskuntza-ildoak eta ezagutza sortzeko mekanismoak definitzea	✓ Laburpen dokumentua	2022-2023
✓ Ezagutzaren transferentzia eta komunikazioa	✓ Sozializazio-guneak	2022-2024
	✓ Artikulua/argitalpenak	2022-2024
	✓ Komunikazio-pilulak	2023-2024

Ebaluazio plan bat diseinatzea

Ezagutza kudeatzeko strategiaren barruan, ebaluazioa tresna garrantzitsua da gure praktiketarik ezagutza eta ikasketak ateratzeko eta baita erabakiak hartzeko ere.

Jarduteko ildoak	Emaitzak	Aurreikusitako egutegia
✓ Ebaluazio plana	✓ Irizpide eta estandarrak partekatzea	2022
	✓ Ebaluazioak lehenestea	
✓ Gaitasunak indartzea	✓ Bi prestakuntza	2022-2024

Ikerketa bultzatzea

Era berean, ikerketa funtsezko elementutzat jotzen dugu gure praktiken ezagutzan sakontzeko, beste iturri batzuekin kontrastatzeko eta lankidetzaren deszentralizatuaren espezifikotasuna balioesteko.

Jarduteko ildoak	Emaitzak	Aurreikusitako egutegia
✓ Elkarrizketak eta analisiak, ikerketaren arloan jarduteko ildoak aztertzeko	✓ Ondorioen dokumentua	2022-2023
✓ Azterketa laburreko argitalpen-lerro bat garatzea, lankidetzaren deszentralizatuaren espezifikotasunetik abiatuta	✓ Bi bilduma	2022-2024

6. KOMUNIKAZIOA

IV. Gida Planaren luzapen-aldian eLankidetzaren I. Komunikazio Planaren (2019-2022) implementazioa amaituko dugu, eta datozen urteetan jarraitu beharreko komunikazio-estrategia berrikusiko dugu. Gainera, honako lorpen hauek aurreikusten ditugu:

Jarduteko ildoak	Emaitzak	Aurreikusitako egutegia
✓ eLankidetzaren webgune berria abiaraztea	✓ Web berria	2022
✓ Komunikazio digitalaren estrategia diseinatzea eta bultzatzea	✓ Landutako estrategia	2023
	✓ Funtzionalitate eta produktu berriak	2022-2024
✓ Euskal lankidetzaren publikoaren ataria hobetzea	✓ Bi udal gehiago sartzea	2023-2024
✓ Ekimen garrantzitsuetan komunikazio-ekintza estrategikoak bultzatzea	✓ Hiru kanpaina gutxienez	2022-2024

7. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Urteko plangintza eta memoriez gain, honako hauek dira 2022-2024 aldirako aurreikusitako ekintza nagusiak:

Jarduteko ildoak	Emaitzak	Aurreikusitako egutegia
✓ Jarraipen-sistema hobetzea	✓ Adierazleen matrizea eta hura elikatzeko mekanismoa sinplifikatzea	2022
	✓ Hurrengo plangintzarako oinarri-lerroa egitea	2023-2024
✓ IV. Gida Planaren ebaluazioa	✓ Ondorioak eta gomendioak	2024

Egindako ebaluazioan agerian geratu da Gida Planaren eta beste plan edo estrategia sektorial batzuen arteko lotura hobetzeko beharra. Luzapen-aldian, plangintza-dokumentu hauek ebaluatuko dira, sektoreko plangintzetarako eta V. Gida Plana egiteko erabakiak hartzen lagunduko digutenak.

Jarduteko ildoak	Emaitzak	Aurreikusitako egutegia
✓ I. Komunikazio Planaren ebaluazioa	✓ Ondorioak eta gomendioak	2022-2023
✓ Ekintza Humanitarioko Estrategiaren ebaluazioa	✓ Ondorioak eta gomendioak	2023
✓ Babesaren ibilbide-orriaren ebaluazioa	✓ Ondorioak eta gomendioak	2023
✓ Genero Berdintasunaren aldeko Erakunde Aldaketarako I. Planaren ebaluazioa	✓ Ondorioak eta gomendioak	2024

8. BALIABIDEAK

AURREKONTU-ESPARRUA

Luzapen-aldian IV. Gida Planean ezarritako helburua lortzea planteatzen da, 2021ean lortu ez zena.

2022	2023	2024
50.500.000 €	51.500.000 €	53.000.000 €

Aipatutako ekintza positiboez gain, Euskadin ekintzetarako emandako funtsen % 13a erreserbatzeko konpromisoari eusten zaio.

8.1. TRESNAK

Tresnak berrikustea

Garapenerako lankidetzaprogrametarako laguntzak arautzen dituen dekretu berria onartzeko prozesuaz harago, lege berria onartu arte itxarotea erabaki dugu beste tresna batzuen dirulaguntzen araudi berria izapidetzen hasteko, etorkizuneko legearen aginduekin koherentea izan dadin. Hala ere, luzapenaldi honetan aurrera egingo dugu egungo tresnak berrikusten, dirulaguntzen etorkizuneko araudia definitzeko elementu nahikoak izateko.

Jarduteko ildoak	Emaitzak	Aurreikusitako egutegia
✓ Eusko Jaurlaritzaren lankidetzapolitikaren helburuei eta helburu horiek lortzeko beharrezko tresnei buruzko gogoeta	✓ Ondorioen dokumentua eta tresnen proposamena	2022-2023
✓ Proiektu-tresnaren berrikuspena	✓ Ekimen eta prozesu garrantzitsuen ebaluazioa	2022-2023
✓ Kudeaketa-prozedurak berrikustea	✓ Ondorioen eta proposamenen dokumentua	2022-2023
✓ Pertsonen lotutako tresnak berrikustea (prestakuntza-bekak, boluntarioak, profesionalak)	✓ Prestakuntza eta eztabaida jardunaldi bat	2023

Tresnen arabera banatu daitezkeen funtsen aurrekontu-zenbatespena

Dirulaguntzak kudeatzea eta ematea gure jardueraren zati garrantzitsu bat da. IV. Gida Planean ezarritako eta luzapen-proposamen honetan berretsitako lehentasunez gain, dirulaguntzen plan estrategikoek eta urteko planek aurrekontua aplikatzeko ildo orokorrak zehaztuko dituzte, baita tresna bakoitzerako berariazko funtsen lehentasunak eta erreserbak ere. Luzapenaldi honetan, erreferentziatzat hartuko da IV. Gida Planean ezarritako tresnaren arabera banatu daitezkeen funtsen banaketa-esparrua.

8.2. PERTSONAK

Epe honetan, jarduera hauek egitea aurreikusten dugu eLankidetzako taldea indartzeko:

Jarduteko ildoak	Emaitzak	Aurreikusitako egutegia
✓ Faktore psikosozialen ebaluazioa, lanaren diseinua, antolaketa eta kudeaketa hobetzeko	✓ Prebentzio-neurrien jarraipena eta ebaluazioa	2022-2024
✓ Taldearen gaitasunak indartzeko prestakuntza-plan bat diseinatzea	✓ Helburuak eta irizpideak estandarizatzea	2022

8.3. PARTE-HARTZEA ETA GOBERNANTZA

IV. Gida Planaren *parte hartzea, sailen arteko koordinazioa, erakundeen arteko koordinazioa eta Estatuko, Europako eta nazioarteko koordinazioa* mantentzen dira luzapen-aldian.

8.4. ARAUDIA BERRIKUSTEA

Esan bezala, IV. Gida Plana gauzatzeko epea luzatzeko arrazoia Garapenerako Lankidetzaren Euskal Legea berritzearekin lotuta dago.

Jarduteko ildoak	Emaitzak	Aurreikusitako egutegia
✓ Legearen tramitazioa	✓ Lege-aurreproiektua Eusko Legebiltzarrera bidaltzea	2022

8.5. BERRIKUNTZA ETA HOBEKUNTZA ADMINISTRATIBOA

Aurrera egiten jarraituko dugu dirulaguntzen politikaren eta laguntza-tresnen kudeaketa hobetzeko.

Jarduteko ildoak	Emaitzak	Aurreikusitako egutegia
✓ Dirulaguntzak kudeatzeko prozesuetan hobekuntzak ezartzea	✓ Kudeaketa-prozesuak arrazionalizatzea	2022-2023
	✓ Prozedura estandarizatuak	2023-2024
✓ Kudeaketa-tresnak hobetzea	✓ Hobetzeko konponbideak	2022-2024

9. AUZO(LAN)KIDEAK

AUZO(LAN)KIDEAK ekimen enblematikoen aldeko apustua egiten jarraitzen dugu, lehenetsitako ikuspegiak praktikan jartzen lagunduko digutelakoan.

Lehen esan bezala, IV. Gida Planaren luzapen-alditik honako hauek kentzea erabaki dugu:

- AUZO(LAN)KIDEAK GIZA ESKUBIDEEN ALDE: enpresak eta giza eskubideak
- AUZO(LAN)KIDEAK EROSTERAKOAN: erosketa publiko arduratsua
- AUZO(LAN)KIDEAK MUNDUAN

2018-2021 aldian, hiru ekimen enblematiko horietan egindako aurrerapenak oso mugatuak izan dira. Ildo horretan, egokitzat jotzen da beste sail batzuek gidatutako ekimen enblematiko batzuen lana bultzatzen ez jarraitzea, eta horiek abian jartzean eta sakontzean eragin zuzena izan dezakegun ekimenetan arreta jartzea. Nolanahi ere, eLankidetzak jarraipena egingo dio beste sail batzuek jarduera-ildo horietan egindako lanari.

10. AZKEN GOGOETAK

Luzapena 2022-2024 aldirako planteatu da. Legea onartzeko prozesua bi urtekoa izango dela uste bada ere, hiru urterako aurreikuspena egin da. Hiru urteko epean legea onartzeko prozesua amaitu ez bada, urteko plangintzaren bidez luzapena beste urtebetez luzatzea egokia den baloratuko da, IV. Gida Planaren ardatzak eta lehentasunak errespetatuz.

Dokumentu honek aldi honetarako jarduera-ildo berrienetako batzuk jasotzen ditu, eta IV. Gida Planaren esparruan lantzen ari garen beste ildo batzuen jarraipena berresten du.

2018-2021 aldian ikasi dugu krisiek malgutasuna eskatzen dutela ustekabeari aurre egiteko, baina, era berean, aukera-leihoak irekitzen dituztela. Horregatik, luzapena gauzatzean oreka bilatuko dugu planifikatutako ekintzak betetzearen eta krisi-egoerei aurre egiten eta sor daitezkeen aukerei probetxu ateratzen jakiteko malgutasunaren artean.

Luzapen aldi honetan zehar, V. Gida Plana egiteko ekarpenak sortuko ditugu. Besteak beste, hurrengo urteetarako lankidetzaren erronkei buruz hausnartuko dugu, hurrengo aldirako ikuspegi mugatzen lagunduko digutenak; aldaketaren teoriara hurbiltzen hasiko gara, eta horren bidez hurrengo plana diseinatu nahi dugu; eta azkenik hurrengo planerako oinarritzko lerro bat eraiki ahal izateko adierazleak eta datuak biltzeko sistema egoki bat eraikitzeko lan egingo dugu.